

JOLASA

Gure alorrean jolasa oinarrizko hezkuntza tresna denez, “jolasa oso garrantzitsua da pertsonaren garapenerako” adierazpena sobera ezagutzen dugu.

Haurrek oso txikitandik jolasten dute. Lehenengo bakarrik edo beren senideekin jolasten dute, eta geroago, jolasa ikasteko eta besteekin erlazionatzeko tresna bilakatzen da.

Gure hezigaiek, gu bertan egon ez arren, jolastu egiten dute (haurrek nabariki eta oso sarritan, eta nerabeek eta helduek ere bai, modu estaliagoan); baina gure presentziari esker, jolasa hezigarria bihurtzen da.

Hezitzaileok sozializazio prozesu horretan parte hartzen dugu. Jolasaren eta jolasaren elementuen ezagutzatik abiatuz, haurrak jarrera eta balore ez-bortizetan hezteko tresna gisa erabiltzen dugu.

Beraz, haurrak bizikidetza eta bakerako hezi nahi ditugunez, lankidetza jolasak defendatzen ditugu beste guztien gainetik, lankidetza eta jolasa bereiztezinak baitira.

LANKIDETZA JOLASAK ETA KIROLAK

Ondoren proposatzen ditugun jolas eta dinamika guztiak lankidetzazkoak dira, nahiz eta denen azken helburua lankidetza izan ez arren.

Pertsonak taldean parte hartzeko eta beren ekarpenekin taldearen helburuak lortzen laguntzeko motibatzen baditugu, jolasa gizabanako solidario, zuzen eta konprometituak garatzeko oso baliagarria dela ikusiko dugu.

Orokorrean, lankidetza jolasak eta kirolak une jakin batzuetan bakarrik egin izan ohi dira, eta une horietatik kanpo jolas lehiakorrak dinamizatzen jarraitzen dugu. Guk nahi duguna zera da, lankidetza jolasak gure hezkuntza baliabideen liburutegian jolas bakarrak izatea.

Lankidetza jolasak dira benetako jolasak, eta beren egituran hainbat hezkuntza balore aurki ditzakegu. Taldearen edozein une ebolutiborako jolas aproposak daude: lasaitzeko jolasak (energia husteko, barre egiteko, ongi pasatzeko, lasaitzeko edo gustura sentitzeko); ezagutza jolasak, konfiantza jolasak, komunikazio jolasak, gatazkak konpontzeko jolasak, etab.

Pixkanaka, haurrak lankidetzan aritzeak elkarrekin lehiatzeak baino abantaila gehiago dituela konturatuko dira, egoera horiek bizitzerakoan beren sentimenduak eta besteak ikusiko baitituzte.

Lankidetza jolas eta kirolen ezaugarriak.

- Pertsona guztiek parte hartzen dute.
- Ez dago irabazlerik, ezta galtzailerik ere.
- Taldekide guztiak onartzen dira.
- Lankidetza. Jokalariek elkarri lagundu behar diote jolasaren helburua lortzeko; hain zuzen ere, helburu hori ezingo da erdietsi taldekide guztiak elkarlanean aritzen ez badira.
- Ongi pasatzea jolasaren osagai nagusia da.

Lankidetza jolas eta kirolen bidez hezteak zera dakar:

1. Sozializazio faktoreen garapena bultzatzea, honako hau suspertuz:
 - Taldekideek elkar ezagutzea.
 - Taldekideen artean elkarreteragin adiskidetsuak, positiboak eta konstruktiboak egotea.
 - Hitzezko eta hitzik gabeko komunikazioa lantzea.
 - Talde kohesioa; taldeko kide izatearen sentimendua.
 - Entzute aktiboa lantzea.
 - Sozializazioa errazten duten jokabide sozialak garatzea: laguntza jokabideak, asertziozkoak...
 - Sozializazioa eragozten duten jokabideak antzematea: jokabide bortitzak, pasiboak...
 - Gatazkak konpontzeko estrategia bortitzak erabiltzeko joera murriztea.
 - Garapen morala: jolasen arauetan eta taldeak jolaserako sortutako arauetan dauden arau sozial inplizituei men egitea.
2. Garapen emozionala bultzatzea.
 - Emozioen identifikazioa, ulermen kognitiboa eta adierazpena.
 - Emozioak adieraztea dramatizazioaren, musika mugimenduaren, marrazketaren eta pinturaren bidez.
 - Pertsonengan sentimendu "onak" edo "txarrak" sorrarazten dituzten egoerak identifikatzea eta bi egoerak bereizten ikastea.
 - Taldekideen emozioen aurrean enpatia garatzea.
 - Autokontzeptua hobetzea.
3. Faktore intelektualen garapena bultzatzea, hala nola:
 - Ahozko sormena, sormen grafikoa, eraikuntzarako sormena eta sormen dramatikoa.
 - Ahozko arrazoibidea.
 - Arreta.
 - Sinbolizaziorako ahalmena.
 - Oroimena.
 - Pentsaera asoziatiboa.

Lankidetza jolasek eta kirolek transmititzen dituzten baloreak.

Aurrerago esan bezala, jolasa balore eskola bat da berez. Jolasaren elementu guztiak balore jakin batzuez blaituta daude: egitura, edukiak, arauak, garapena, helburuak zein haiek erdiesteko modua. Balore horiek oso erabakigarriak dira eta garrantzi handia eman behar zaie, jolasa dibertimendura mugatu gabe.

Zenbait jolasek kontrabaloreak sustatzen dituzte, hala nola, sexismoa, intolerantzia, arrazakeria, jarrera uniformatzaileak eta mendetasunezkoak, etab. Jolasa ez da inoiz neutrala. Beraz, hezitzaileak garen neurrian, ez litzateke koherentea izango elkartasuna, lankidetza, justizia eta beste hainbat balore defendatzea eta, gero, haurrak jolas eta kirol lehiakorretan parte hartzera animatzea.